

HARTZAILEAK:Bizkaiko Tennis Federazioko Batzarkideak

GAIA:Batzar Orokorreko saioaren deialdia

Bilbon-Bizkaia, 2016ko Irailaren 2an

Jaun/Andere agurgarriok:

Bizkaiko Tennis Federazioko Hauteskunde Arautegiaren (6.1.art) harira, hauteskunde prozesua hasi baino lehen dagokio Batzar Orokorrari, urte olinpikoan egin behar diren hauteskunde Hauteskunde Batzordea izendatzea.

Jakina denez eta Hauteskunde Arautegiak dioenaren harira, Hauteskunde Batzordea hiru kide titularrez eta beste horrenbeste ordezkos osotarik egongo da. Hauteskunde batzordean egongo diren kideak ezingo dira hautagai izan hauteskunde prozesuan zehar. Hauteskunde arautegiko 6.3 artikulua dioenaren harira,Hauteskunde Batzordeko kide izan nahi dutenek, Batzar Orokorra ospatu baino gutxienez zortzi (8) egun lehenago jakinarazi beharko dute Hauteskunde Batzordeko kide izateko naia. Batzarkideek, Batzar Orokorra ospatu aurretik jakin beharko dute hautagaien berri.

Hauteskunde batzordea osatzeko hautagai kopurua, beharrezko kide titular eta ordezkoei baino handiagoa balitz,orain deitzen den Batzar Orokorrean bozkatuko da. Hauteskunde batzordea osatzeko hautagai kopurua, beharrezko kide titular eta ordezkoei berdina edo txikiagoa balitz, hauei inolako bozketaren beharrik gabe izendatuko zaie.

Hiru (3) postu titularrak eta hiru (3) ordezkos postuak betetzeko hautagaien kopurua beharrezkoa baino txikiagoa balitz, falta diren kideak zozketa publikoan hautatuko dira, sesio berdinean egingo delarik aipatutako zozketa.

Hauteskunde Batzordeko kideak beraiei kargua onartu beharko dute, beti ere frogatutako lan arazo, familia, ikasketak, osasun edo antzeko gairen batengatik, ezinezkoa bazaie beraiei funtzioak behar den bezala egitea. Titular bezala dauden kideak honela banatzen dira: Presidenteak adinean nagusia dena izango da eta Idazkaria adinean gazteena.

Hori dela eta, boluntario bezala Bizkaiko Tennis Federazioko hauteskunde organoko kide izan nahi dutenek, 2016ko Irailaren 11 arte (barne) izango dute idatziz beraiei hautagaitza aurkezteko.

Halaber, eta honen bitartez, Bizkaiko Tennis Federazioko Ez Ohiko Batzar Orokorrera deitzen dizuegu. Batzar hau **2016ko Irailaren 19an ospatuko da, lehen deialdia 19:00etan eta bigarrena 19:30etan,** hurrengo Gai zerrendarekin.

GAI ZERRENDIA

BAKARRA.-Hauteskunde Batzordearen izendapena

Batzar Orokorreko kideei honakoa gogorarazten zaie:

- Ezingo da botoa eskuordetu
- Batzar Orokorrean Kirolari, Epale edo teknikoen ordezkari izan daitezkeenak, ezingo dute aldi berean Klub edo Kirol Elkartearen ordezkari izen.
- Klub eta Kirol Elkarteetako ordezkariak, batzarra hasi aurretik klub edo kirol elkartearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute. Ziurtagiria presidentearen oniritziarekin egon beharko da eta bertan klub edo kirol elkartearen ordezkari legal edo apoderatu bezala dagoela ziurtatuko da.

Besterik gabe,

Adeitasunez,

Jorge Barrie
Presidente